

B

BARREN

TOKIKOM



Irribarreen paradisuan

Jairo Berbel

ARANBURU



BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:


1. SARIA

500 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 1.899

Ordezko zbkia.: 1.395



2. SARIA

500 €-ko

balea bitxi dendan
gastatzeko

Zbkia.: 1.659

Ordezko zbkia.: 2.856

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

MGS



Mutua General de Seguros
euromutua

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua

ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

MARIA LUISA URAIN ARAKISTAIN

Pza. Jausoro, 1 • 20807 Elgoibar

T/ 943 742 699 • F/943 741 235
murain@mgs.es

Agente de Seguros Exclusiva: M006715339944W

JESUSA SORALUZE LEYARISTI izan da aurtengo urtero
bezeroen artean zozketatzen den telebistaren irabazlea.

ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Auto eta etxe aseguruak
- Aurrezte eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- PYME eta denda aseguruak
- Diru inbertsioak
- * "Vida fondo" (unit link)
- * Burtsa
- * Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- * PPA desgrabatze eta kapital ziurtatua



www.mgs.es

www.mgs.es

www.mgs.es

www.mgs.es

Eskerrik asko guztioi!

Amaitu da "Ni ere banaiz Barren!" kanpaina, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu kanpainarekin bat egin duzuen guztioi. Asko izan zarete irailetik hona bitartean bono-laguntzak erosi dituzuenak, eta zuei esker, 2010eko defizitari aurre egitea lortu dugu.

Herritarrek argi esan duzue "Ni ere banaiz BARREN!". 12.540 euro lortu ditugu guztira, baina kopuru horren atzean zifra hotz bat baino askoz gehiago dago. Herritarrok BARREN maite eta estimatzen duzuela erakutsi duzue oraingoan ere, eta, benetan eskertzekoa da hori.

Eta BARREN astekaria maite duzuelako, astero-astero zuen etxeetako postontzian egoteko lanean jarraituko dugu. Azken urteotako ibilbidea ez da erraza izan, eta datorkiguna ere ez da samurra izango, gastuak diru-sarrerak baino handiagoak direlako. Gastuak murrizteko egin ahalak egin arren, defizita handia da, diru-sarrerak nabarmen egin dutelako behera. Eta beraz, 2011. urtea ere maldan gora datorkigu. Horrenbestez, hainbat murrizketa egin behar izan ditugu, proiektuari eutsi ahal izateko. Aldaketa nabarmenena astekaria eskuartean hartzean nabaritu duzue seguruenik. Lau orrialde kendu dizkiogu aldizkariari, inprenta gastuak gutxitzeko, eta urte honetan 24 orrialde izango ditu BARRENek. Hala ere, eta orrialde gutxiago izan arren, saiatuko gara ahalik eta informazio osatuena jaso eta eskaintzen. Era berean, langileen lan jarduna murriztu dugu, soldatetan aurrezteko.

Eta, etorkizunean zer? BARRENEN etorkizuna aztertzen ari da El-

goibarko Izarra, eta baliteke datorren urterako aldaketak etortzea. Debabarreneko gainerako euskara elkarteekin batera, eskualdeko proiektu komunikatiboa martxan jartzeko bideragarritasun plana egiten ari gara. Eusko Jauriaritzatik lortutako diru-laguntzari esker egingo dugu ikerketa, eta uda alderako erabakiko dugu bailarako proiektu berria sortuko dugun ala ez. Erabakiak hartzeko unea iritsi da.

Hemezortzi urte dira Elgoibarko Izarrak BARREN sortu zuenetik, eta bide horretan, herritarren babesa eta elkartasuna ezinbestekoa izan da. Ez dakigu etorkizunean herri edo bailarako proiektua izango dugun, baina, proiektua edozein dela ere, seguru gaude denon artean egingo dugula. Eskerrik asko guztioi, eta ez ahaztu zuek ere bazaretela BARREN.



Ainhoa Andonegi
BARRENeko
koordinatzailea



**"Eskerrik asko guztioi,
eta ez ahaztu zuek ere bazaretela BARREN"**




**Ni ere banaiz
BARREN!**

PAKITA ANSOLAK

**jaso du
"Ni ere banaiz Barren"
kanpainen zozketatutako
saria: bi lagunentzako
dastatze menua
Belaustegi jatetxean.**

**ZORIONAK, PAKITA,
ETA ESKERRIK ASKO
GUZTIOI!**



2011

MALDAN GORA

Familien ekonomiarentzako ez da urte ona izango hasi berri dugun hau. Urtarrila aldapan gora hasi ohi dute herri-tarrek, eta “krisiari aurre egiteko” hartutako hainbat neurri-rik aspaldiko urteetako aldatzik gogorrena egingo dute aurtengoa, adituena esanetan. Izan ere, kontsumitzaileen-tzako albiste txarrez josita dator 2011. urtea. Krisi egoera bete-betean, oinarritzko zerbitzuen tarifek gora egin dute, hainbat murrizketa izan dira, eta langabeziaren mamua gainetik kendu ezinda darabilgu. Hona hemen 2011ko al-daketa aipagarrienak.

Ainara Argoitia



LANGABEZI SARIA

Langabezi saria agortu eta beste diru iturri gabe geratzen zirenek 426 euroko diru laguntza jasotzen zuten 2009ko abuztuaz geroztik, baina 2011rako laguntza hori kentzea erabaki du Espainiako Gobernuak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, orain laguntza hori jasotzen ari zirenek ez dutenik gehiago jasoko. Izan ere, sei hilabeterako laguntza izaten zen hori, eta epe hori amaitu bitartean, hilean 426 euro jasotzen jarraituko dute.

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA

Abenduaren 30ean, lanbide arteko gutxieneko soldata %1,3 igoko zela jakinarazi zuen Espainiako Ministroen Kontseiluak, Lan Ministerioak iragarri baino hiru hamarren gehiago. Lgoera horrekin, lanbide arteko gutxieneko sol-

data 641,4 eurotan dago orain. 2012rako gutxieneko soldata 800 eurokoa izango zela agindu zuen PSOEn gobernuak, baina ez du ematen hitza beteko duenik. Bestalde, administrazioarentzako lanean ari diren behargin-
nei, funtzionarioei, eros ahalmena apalduko zaie. Ekainean %5 jaitsi zizkieten soldadak, eta 2011n funtzionarioen soldadak bere horretan mantenduko dituztela iragarri dute.

2.500 EUROKO DIRU LAGUNTZA

Umea izan edo adoptatu dutenei 2.500na euroko diru laguntza emateari laga dio 2011n Espainiako Gobernuak. 2007ko uztaillaren 1ean onartu zuen laguntza hori ematea, jaiotza tasa handitzeko, baina aurrean, bertan behera laga du, defizitari aurre egiteko hartutako neurrien barruan. Iaz, Hego Euskal Herriko 28.338 familiak jaso zuten seme-alaba bat

izan edo adoptatzeagatik Espainiako Gobernuak ematen duen 2.500 euroko diru laguntza.

ETXEBIZITZEN DESGRABAZIOA

Etxebizitza erosteak ez du desgrabatzeko balioko aurrerantzean, ez behintzat diru sarre-
ra maila tartekoa dutenentzako. PFEZ-IRPFa indarrean jarri zenetik indarrean zegoen arau-
di hori bertan behera laga du Espainiako Go-
bernuak.

ARGINDARRA ETA GASA

Urtarrilaren lehenengotik, argindarraren kontsumitzaileek %9,8 gehiago ordaindu be-
harko dute. Hala erabaki du Espainiako Gai
ekonomikoetarako Gobernuak batzordeak. Bataz beste, hileroko 4,25 euro gehiago or-
daindu beharko dituzte kontsumitzaileek, ur-

Bilal Attigui izan da 2011n Elgoibarren jaio den lehenengo umea. Urtarrilaren 5ean jaio zen, Errege bezperan, eta opari ezin ederragoa izan dela aitortu dute haren gurasoek, Fatima Mesaoud eta Abderraffik Attigui. Zorion aurpegia nabari zaie Bilalen gurasoei, eta baita Mama Belkadi haren amamari ere. Aljeriatik etorri berri da Mama, biloba txikia ezagutzera. Zoriona ekarri du Bilalek etxera, baina haren gurasoek ez dute haur jaio berriagatik laguntzarik jasoko. Izan ere, umea izan edo adoptatzeagatik eman ohi zuten 2.500 euroko diru laguntza kendu egin du Espainiako Gobernua. Hiru urte dira Attigui-Mesaoud sendia Elgoibarren bizi dela. Argazkian, Bilal jaioberria, amama eta aitarekin.



Urtarrilaren 2an jarri zen indarrean leku publiko itxietan tabakoa erretzea debekatzen duen legea, eztabaida askoren ostean. 2010. urtearen hondarrean BARRENEK kalean egindako galdeketa batean, inkestatutako gehienek zalantzan jarri zuten legea beteko ote zen, baina, itxuraz, herritarrak ari dira legea errespetatzen. Hala jakinarazi dute behinik behin galdekatutako ostalariak. Tabernetan ez dago tabako kerik, eta taberna, jatetxe eta lokal atari askotan hautsontziak jarri dituzte; baita berogailuak ere, bakarren batzutan. Dena den, urtarileko lehenengo egunetako eguraldi epelari esker arinagoa izan da erretzera kalera irten behar izatea.

tean 51,1 euro gehiago. Pentsio minimoa jasotzen dutenek eta familia ugariak ez dute igoerarik izango. Era berean, gasak ere gora egin du. Gas naturala %3,9 garestitu dute, eta butanoa, berriz, %3,13.

TABAKOAREN LEGEA

Urtarrilaren 2an jarri zen indarrean Tabakoaren Kontrako Legea, leku publiko itxietan tabakoa erretzea debekatzen duena. Espainiako Kongresuak 2005. urtean onartutako Tabakoaren Legearen moldaketa bat da oraingoa, baina lege berrian duela bost urteko araudiak onartzen zituen salbuespen gehienak kendu dituzte. Urtarrilaren 2az geroztik debekatuta dago, besteak beste, ondorengo leku hauetan erretzea: lantokietan, herri-administrazioen eta zuzenbide publikoko erakundeen zentroetan,

osasan-zentroetan nahiz zentro horietako atarrietan, ikastetxeetan zein prestakuntza zentroetan, ikuskizun publikoak egiten diren toki itxi guztietan, kirol instalazioetan, merkataritza guneeetan, gizarte-arretarako zentroetan, aisialdirako guneeetan, garraio-bide publikoetan eta geltokietan, gasolindegietan eta antzekoetan, haurrentzako jolaslekuetan eta umeen aurrean, eta erabilerako publikoko gainerako gunek itxi guztietan.

Oro har, espazio publikoetan erretzea debekatzen du, baina salbuespenak daukela onartzen du. Adibidez, espetxe eta ospitale psikiatrikoetako gunek zehatz batzuetan erretzea baimentzen du legeak.

Era berean, aipagarria da 2005eko legea betetzeko egokitze lanak egin zituzten ostalariak –jatek eta tabernetan

erretzaileentzako gunek egokitu zituztenak, adibidez– saritzea ere baztertu duela Kongresuak lege berrian. Ostalari horiek onura fiskalak eskaintzea proposatu zuten Senatuak, baina eskari horrek ez zuen aurrera egin Kongresuan. Zigorrei dagokionez, berriz, legearen urratze arinak 30 eurotik gorako isunekin zigortuko dituzte; urratze larriak 10.000 euro artekoak izango dira, eta urratze oso larriak, berriz, 600.000 euro arteko isunak jasoko dituzte.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, otsailean onartuko du tabakoaren kontrako legea, eta iragarri dutenez murrizketa eztabaidagarrienak kendu egingo dituzte azkenean. Esate baterako: autoan haurren aurrean erretzea eta gasolindegietan tabakoa saltzea.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Berezia da abenduaren 24a Atxutxia-maikarentzat. Olentzero eta Mari Domingiren bisita jasotzen dugu egun horretan, eta bi lagun horiek gure herriko haurren ilusioa pizten dute. Eta gurea ere bai.

Duela hamahiru urte ekin genion egun hori antolatzeari, eta, poliki-poliki, aldatzen joan da: hasieran, Olentzero bakarrik etortzen bazen ere, azken urteotan Mari Domingiri eskutik helduta azaltzen da gure artera; dekorazioa... Saiatu gara gauzak gero eta hobeto egiten. Aurten ere izan dugu berrikuntzarik: talogintzan jardun dugu. Bagenuen beldur pixka bat –estreinako lanek beti sorrarazten dute urduritasun puntu hori–, baina lanerako gogoak eta ilusioak oztoporik zailenak ere gainditzen laguntzen dutela konturatu gara.

Baina Atxutxi ez zuen bakarrik jardun abenduaren 24an; txikia da Atxutxi egun horretako lan guztiak bakarrik egiteko, eta herriko gazteen laguntza eta elkarlana eskatu zuen. Oraingoan ere, beste askotan moduan, gazteen inplikazioa txapela kentzeko modukoa izan zen. Hogeitabat lagunak azaldu ziguten laguntzeko borondatea, eta denon artean egin genituen abenduaren 24ko lanak. Musutruk egin zuten lana; bai, talo eta tragoxka batzuen truke.

Estimatzekoa izan zen, benetan, zuon laguntza. Taloak egiten asko; barrako lanetan beste mordo bat; txosna antolatu eta jasotzen; suak prestatzen eta pizten; Atxutxiamaikarentzat hain garrantzitsua den eguna behar bezala antolatzen, azken finean.

Eskerrik asko, bene-benetan, Atxu-

txiamaika osatzen dugun guztion izenean. Hurrengora arte!

Atxutxiamaika ☺

Iragana, oraina eta geroa, Euskadi, sasi guztien gainetik

Ezinbestekoa da ETAre jakinarazpenaren inguruan arduraz jardutea, baina, itxaropena sortzen digu?

Hitzaren erabilera eta besteekiko errespetua dira pertsonen askatasun osoa bermatzen duten erreminta bakarrik. Horrekin bat ez datorrenak ez du kokapenik gaurko gizartean, eta ezin du bere burua herri proiektu edo eskubideen eragile eta kudeatzaile gisa azaldu. Eta horiek erabili zituen Ibarretxe lehendakariak, 2005eko otsailaren 1ean, Eusko Legebiltzararen erabakiz, herriaren agindua jarraituz eta honen izenean, Espainiako Diputatuen Gorteetara zuzendu zenean. Urte batzuk pasatu badira ere egun hartatik, orduan esandakoak hemen jaso nahi izan ditugu, euskaldun guztion izenean ETAr erantzuteko hitz egokiak iruditu zaizkigu eta:

"Eusko Legebiltzararen izenean etorri naiz hona, Espainiako Gorteetara, defendatzeko Euskadi eta euskaldunok eskubide osoa dugula gure etorkizuna askatasun osoz erabakitzeko". "Zuei (herritarrei) zuzendu nahi natzaizue, bereziki zuei, esateko geroa gurea dela eta geuk idatziko dugula, besteekin adostuaz, baina geuk, geure eskuz". "Ez gaitzezela, beraz, gu ere gerokoan fida: joanak joan, etorkizuna etorkizun, oraina da gurea, eta ez bertze".

Ibarretxe lehendakariaren hitzek adierazten diguten moduan, euskaldunon sen-

timenduak eta eskubideengatik borrokatzeko baliabide bakarra hitza da, eta horren bitartez soilik landu dezakegu gure herria askatasun osoz.

Elgoibarko EAJ - PNV ☺

Eskerrik asko!

Arnaldo askatu, politika askatu plataformaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu Logroño-ko espetxerako martxan parte hartu zenuten guztioi, denon artean egun oso hunkigarri bat bizi izan genuelako. Plataformaren izenean, esker bereziak eman nahi dizkiegu Miren Beitia, Irati Agirreazaldegia, Mikel Olaizola, Nerea eta Ainhoa Lendinez, Imanol Larrañaga, Andoni Viñaras eta Iñigo Urigoitiari, ekitaldia aurrera ateratzeko eskaini ziguten laguntzagarri. Horiekin batera, ekitaldiaren hornikuntzarako beharrezko materiala eskaini ziguten guztiei ere, eskerrik asko. Amaitzeko, plataformak Arnaldoren askatasuna eskatzeko egingo dituen hurrengo ekintzetan ere parte hartzera animatzen zaituzte elgoibartar guztiak. Eskerrik asko.

Arnaldo askatu, politika askatu ☺

Eskerrik asko!

Eskerrak eman nahi dizkizuegu Gabon Zahar egunian elkartasun taluekin buru-belarri lanian jardun zendueneri, eta baita laguntzeko asmuakin agertu zirenen guztixeri ere. Ikusi genduan herriko txorixo guztixa amaitzia posible zala, eta ia aurrerrantzia ere, txorixueri talua ematen diegun. Askatu ezank barruko okila. Benetan, mila esker.

Okil Beltzak ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


Argitaratzailea:





Angel
Bazterretxea

Gabonak joan dira, eta orain Gabon ostea. Gu, ikasle ginenean, Errege biharamona benetan triste izaten zen guretzat. Gabonak geure familiarekin igaro ostean, beste sei hilabeterako joan behar izaten ginen seminariora.



Iñigo
Lazkano

Facebookik badakazu, Don Angel? Gaur egun hain modan dauazen sare sozial hórretako bat da. Sare hórrei esker, momentu oro jakin geinke geure lagun eta familiakuen berri. Internet bidez euren argazkixak ikusi geinkez, eta momentu horretan idazten debezen mezuak irakurri, bat-bateko posta balitz bezala. Guzti honek distantziak txikitu egiten ditu, eta nahiz eta ez dan gure eguneroko harreman bat ordezkatzeko gai, asko xamurtzen ditu urrutiko egonaldixak. Gaiñera, kasu askotan

Facebook, Tuenti, Twitter eta beste koadrilla hórrei danei esker, edo zoritxarrez, segun eta zelan begiratzen dan, ixa ezagutzen ez dogun jendierekin harreman haundixaua daukagu gure goixan edo albuari bizi diran bizilagunekin baiño. Honekin ez dot esan nahi Facebooka izan baleu poz-pozik kantuan juango zanik zure laguna Ternua aldera, baiña, bueno, ez det uste halako mutur beltza eramango zuanik.

“Ikasle ginenean, Errege biharamona benetan triste izaten zen guretzat”

ta da, eta Mutriku emaztea eta lau seme-alabak laga eta sei hilabeterako Ternua doa, bakailautara. Horregatik, hago ixil-ixilik, eta konparatu ezak marinel horren bizitza eta zeurea. Bata, Ternuan, zero azpiko tenperaturan bakailaoa harrapatu nahian. Eta Ternuan egondako nire lagun abade batek esana zidan, gainera, zer menu izaten zuten han itsasontzietan: eguerdian, bakailaoa patatekin, eta gauean, patatak bakailaoarekin”. Sasoi hartan, nik ez nuen gehiegi apreziatzen ikastera joateko aukera izanda, zein zorteko nintzen. Ez dakit garbi zer esan nahi nuen honekin guztiarekin, baina barruan neukan oroitzapen hori, eta horregatik kanporatu dut. Ez dakit oraingo ikasleek horrelako tristurarik sumatzen duten ikastera dihoazenean. Ziur naiz marinel mutrikuar hura triste zihola Ternua. Eta gaurko edozein langile, lanerako dauzkagun hainbat arazo tarteko, ez al dira marinel hura bezala triste joango lanera? Ez dadila horrela izan, eta irribarrea etor dadila denon artera, dauzkagun laneko arazo eta abar txarrak baztertuz.

“Bestiena beti hobia!’. Gaixo hori zuten lehen, eta geu ere hala gabiz”


Gaur egun jendiak beste arazo batzuk ditu lanan inguruan. Hori lana daukenek, jakiña, ze nahiz eta Euskal Herriko ditxosozko krisi mada-rikatu honetatik inguruko beste herri batzuk baiño askoz hobeto irteten ari ei dan. Nahikua gogor jo dau, baiña, eta gure kasuan, Debabarrenian, langabezi tasa Euskal Herriko altuenetako bat izatera ailegatu da. Gaur egun ez det uste asko kezkatzen gaitunik lanera munduan beste puntara juatiak; lana izatiak kezkatzen gaitu gaur, eta baita zer nolako lana izango dogun jakitiak, eta lan horren trukian zenbat jasoko dogun jakitiak ere. Dana dala, Don Angel, inon idatzitta ez dauazen lege hórretako batek dion bezala: “bestiena beti hobia!”. Gaixo hori zuten lehen-guek, eta geu ere halaxe gabiz, eta asko harrittuko nintzake hamendik aurrera hola izango ez balitz. Nere inguruan jende asko somatzen det bestien kotxia hobia dala esanez, bere semia argixaua eta formalagua dala esanez eta abar. Gaixotasun horren bakunia ez det uste inork asmatuko duanik, baiña ez zan aurkikuntza txarra izango.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Martxoaren 15ean amaituko da Plan Nagusiari alegazioak egiteko epea

Mintxeta inguruan kiroldegi berria egitea aurreikusten dute Plan Nagusian

Hiri Antolamendurako Plan Nagusi berriari alegazioak egiteko epea martxoaren 15ean amaituko da, eta herritarren ekarpenak jaso ondoren, Jaurlearitzako Lurralde Antolamendurako sailak aztertu beharko du behin betiko txostena. Jaurlearitzak oniritzia ematen badio Plan Nagusiari, Osoko Bilkurak onartu beharko du behin betiko txostena. Plan Nagusia ikusgai jarri dute San Bartolome kaleko 33. zenbakian, otsailaren 28ra arte.

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia udal lurraldea antolatzeko tresna da, eta txosten horretan Elgoibarrek datozen urteotan izango duen izaeraren oinarriak jasotzen dira. Datozen 8-12 urteetarako helburuak zehaztu dituzte, eta, gure herriaren bilakaera zein izango den ikus daiteke Plan Nagusian. Hala ere, proiektu eta asmo guztiak ez dira, ziurrenik, txostenean dauden moduan gauzatuko, besteak beste,ildo nagusiak zehaztea delako Plan Nagusiaren helburua.

Kiroldegi berria Mintxetan

Orain arte aurreratutako proiektuez gain (trenbidea estaltzea, Pilarreko zahar etxearen proiektua, Urasandi Berri...) kiroldegi berri bat egiteko asmoa



da Plan Nagusiak jasotzen duen berrikuntza nagusienetako bat. Ekipamendu berri hori egiteko, Mintxeta inguruko lurzorua proposatu du Udalak. Bailarako kirol eta aisialdi gune erreferente bihurtu nahi dute Mintxeta. Orain dela bizpahiru urte jarri zuen abian Udalak herrian ditugun kirol instalazioen beharren azterketa, eta 2011ko aurrekontuetan, 350.000 euro bideratu dituzte kiroldegi berri baten proiektua idazteko.

Kiroldegi berria egiteko proposatu duten lur zatia Mintxetako kirol-gunearen eta Basarteko goialdeko etxeen artean dago, Mintxetako aparkalekueta-

tik eta sarreratik gertu. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak jakinarazi du krosari buruzko museo bat eta atletismoa ardatz hartuta eraikiko luketen hotel tematiko batek osatu dezaketela Mintxetako kirol eta aisialdi gunea. Museoa eta hotela eraikitzekeo ideia gauzatu ahal izateko, enpresaren baten elkarlana ezinbestekoa dela uste dute udal agintariek. Udalak lurzorua jarriko luke, eta enpresak eraikinak egiteko beharrezkoa den dirua. Kiroldegi berria egiteko obrak finantzatu ahal izateko, berriz, gaur egun kiroldegia dagoen lurzorua etxegileei saltzea izan daiteke aukeretako bat.

Aurten ere behera egin du odol emaileen kopuruak

URTEA	JASOTAKO ODOL POTOAK
2010	723
2009	807
2007	697
2006	766
2003	809
1993	835

Amaitu berri den 2010. urtean 723 odol poto jaso zituen Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak, 2009. urtean baino 84 poto gutxiago. Hori dela-eta, herritarrak odola ematera deitu dituzte, eta dei berezia egin diete gazteei. Gizonezkoek urtean lau alditan eman dezakete odola, eta emakumezkoek hiru alditan.

Odol emaileen beherakada hori ez da Elgoibarko kontua izan bakarrik. Izan ere, Gipuzkoa osoan gutxitu dira odol erreterbak. Aldiz, odol premian direnen kopuruak ez du behera egin. Uneoro behar den zerbait da odola, eta herritarrek horren kontzientzia hartzea nahi dute odol emaileen elkartekoek.

Izena **Soarte**



Soarte baserriko idiek irabazi dute aurtien Debako Idi Proba txapelketa, 43 plaza eta 3,7 metro eginda Hemezortzi lehiakidek hartu dute parte, eta txapelketa oso berdinduta egon da amaiera arte. Horren erakusle da lehenengo bost sailkatuen artean bi plaza baino gutxiagoko diferentzia egon dela.

Egitasmoa **Jostailu bilketa**

Santa Klarako komentuak jostailuak biltzeko kanpaina jarriko du abian. Gabonak pasatu direla-eta, etxe askotan baztertutako jostailuak egongo direla uste dute ardura-dunek, eta horiek bildu nahi dituzte, ondoren Marokora bidaltzeko. Egoera onean dauden jostailuak eskatu dituzte. Jose Angel Egiguren frantziskotarrak eramango ditu jostailuak Marokora, hango umeen artean banatzeko. Interesatuak komentura eraman ditzateke jostailuak.

Irudia **Pirritx eta Porrotx**

Kiroldegia txiki geratu zen joan den domekan, Pirritx eta Porrotx pailazoan bi emanaldietan. *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna estreinatu zuten, eta ume guztiak adi-adi izan zituzten eurei begira. Pupu eta Lore Pirritxen seme-alabak dira, eta ume horiek nola hazi eta hezi behar diren erakusten dute ikuskizunean.



Elgoibarko Izarraren santa eskean izena emateko epea urtarrilaren 28ra arte

Elgoibarko Izarraren Santa Ageda koruetan parte hartu nahi dutenek urtarrilaren 28ra arte daukate izena emateko epea. Urtero bezala, Santa Ageda bezpera egunean, otsailaren 4an, irtengo dira baserriz baserri kopla kantuan. 14:30ean elkartuko dira denak Plaza Handian, eta bi taldetan banatuta ahalik eta baserri gehienetara iristen ahaleginduko dira. 22:00ak aldean Aiestia-San Migel auzoko elkartean egingo dute afaria. Interesatuak 943 741 626 (Imanol) telefonora deitu edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi dezakete.



Ikasketa gela jarri dute Kultur Etxeko sotoan

Azterketen garaia iristear dagoela-eta, Udalak ikasteko egokitu du Kultur Etxeko sotoa. Otsailaren 4ra arte egongo da zabalik, astelehentik domekara, 9:00etatik 21:00etara.

Torremolinosea bidaia jubilatuentzako

Torremolinosea (Andaluzia) bidaia antolatu du jubilatuen egoitzak, apirilaren 11tik 17rako. Autobusez egingo dute bidaia, eta gehienez, 45 lagunentzako lekua izango da. Beraz, ahalik eta azkarren izena ematea komeni da. Informazio gehiago eskuratzeko jubilatuen egoitzara jo daiteke.



ETAREN ADIERAZPENAREN GAINKO BALORAZIOAK

“Nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra adieraztea erabaki du ETAK”. Hori-
xe erakunde armatuak astelehenean *Gara* egunkariaren bidez helarazitako agirian nabarmentzen den esaldia. Era-
kunde armatuak dio behin betiko konponbiderako prozesuarekin eta konfrontazio armatuaren amaierarekin ETAK
duen konpromiso irmoa dela iragarritako su-etena. Adierazpenak, baina, kolore guztietako erreakzioak ekarri ditu,
ohi legez. BARRENEK Elgoibarko eta Mendaroko hainbat lagunengana jo du, balorazio eske.

Ainara Argoitia

1. Zelan jaso duzu ETAREN su-etena? 2. Eta hemendik aurrera, zer?



MIKEL ARTOLA
AFMko Nazioarteko
zuzendaria

1. “Albiste ona da, bakea lortzeko bidean urrats garrantzitsua dela-
ko. Dena dela, ikuspegi politikoa ez den beste edozein ikuspegitik begiratuta, ulergaitza egiten da alderdi politikoen iritziak hain kontrajarriak izatea. Espainiako Gobernuari ez zaio nahikoa iruditu, baina nik uste garaituaren umilazioa goratzea baino formula aproposagoak eta eraginkorragoak badaudela iraupen eta sarkontasun honetako gatazken bukaeraren atarira heldutakoan. Su-frimendu gehiegi izan dugu”.

2. “Ez dakit zer gertatuko den aurrerantzean, baina aitzakiak aitzaki, orain baino lehen aldarrikapen politiko nabarmena dago hemen, eta gauza guztietaz hitz egitea posible dela hamaika aldiz esana daukate agintari politikoek. Makina bat aldiz esan digute gure gizarteak, indarkeriarik gabe, ibilbide oparoa daukala aurrera begira. Ez dira gutxi krisi latz eta gizarte aldakor honetan aurrera egin ahal izateko gainditu beharreko erronkak!”.



ANJEL
BAZTERRETXEA
Mendaroko parrokoa

1. “ETAK erasoak egiteari lagako diola entzutea positiboa da, aldi baterako izanda ere. Asko hitz egin dute azkenaldian honen inguruan, eta nik zalantza egiten nuen iritsiko ote zen edo ez, baina nahi behintzat nahi nuen, eta gustura hartu dut. Baina, hala ere, ezingo dugu esan ETAK su-eten hau ematea kanpaiak jotzen hasteko modukoa denik”.

2. “ETAK aurrera egiteko borondatea agertzea pauso bat da, pauso eder bat, baina garbi dago ez dela nahikoa. Batetik, ETAK berak ere ez duela-ko esan betiko doanik. Adierazpenean erabiltzen dituen hitzek behintzat ez dute ematen amaiera bat iragartzeko hitzak direnik. Pauso bat da euren bidean, baina gerta daiteke beste aldeak ez hartzea aurrerapausotzat. Euskal Herria herri bezala hartzea eta Euskal Herria bere buruaren jabe izatea nahi duela dio ETAK, eta nik ez dut gogo hori sumatzen beste alderdi batzuegan. Ez dut uste beste horiek hori onartzen dutenik. ETAK armak lagatzea oso garrantzitsua da, baina hemen dugun arazoa oso sakona da, eta hori konpontzea gaitzagoa da”.



OIDIO CAMPELLO
PSE-EEko zinegotzia.
Bizkartzaina du.

1. “Gabonak aurretik geunden zain, eta iritsi da azkenean, baina hala ere ezin esan hau denik euskal herritarren gehiengoak entzun nahi zuen adierazpena. Hau ez da nahikoa. Erakunde terrorista behin betiko desagertzea desio dute herritarrek, behingoz urteetako sufrimendua amaitzea, eta ETak ez du halakorik iragarri. Adierazpenean funtsezkoena falta da hortaz: armak behin betiko uzten dituela eta hiltzeari lagaiko diola esatea. Askatasunak ez du baldintzarik onartzen, eta erakunde terrorista batek ezin du helburu politikoak lortzeko asmorik izan. Indarkeria amaitu beste biderik ez du. ETA ez da nor baldintzak jartzeko, eta ezta tutoretza lanetan aritzeko ere. Desengainu bat da hortaz agiri hau, baina aldi berean, ezin dugu ukatu aldi batez inor ez duela hilko entzutean lasaitu handia hartu dugula. Motzean, adierazpen honek gabezia handiak dituela esango nizuke, eta ETaren ahotik gauza bakarra entzun nahi dugula: behin betiko desagertzen dela”.

2. “Lasaiago biziko naiz aldi batez. Hori bai, ETaren azken pauso horren zain jarraitu beharko dugu. Era berean, ezker abertzaleak erakunde

terroristarekin lotzen duen soka eten behar du behingoz, eta arduraz jokatu. Desagertzeko exijitu behar dio ETari. Euskal gizartearen etorkizuna erakunde demokratikoetan erabakiko da, eta Zuzenbide Estatuko arauak betetzen dituztenek bakarrik izango dute lekua hor. Ziu naiz demokrazia eskuzabala izango dela Zuzenbide Estatuko baldintzak betetzen dituztenekin”.



MARIAXUN LARRAÑAGA
Mekako zuzendaria

1. “Poza, poz handia! Bazen ordua pentsatu nuen! eta burura etorri zitzaizkidan hildakoak, espexxeetan dauden euskal presoak eta bizkartzainekin ibili behar izan duten guztiak.

2. “ETak pauso serioa eman duela uste dut. Motorra martxan dago. Ez da izango ez erraza eta ezta motza ere. Orain elkarrizketarako eta negoziatorako une da. Serioak eta nagusiak izan, alderdikeria guztiak alde-batera utzi, eta Euskal Herriagatik denok elkarrekin borrokatzeko momentua heldu dela uste dut”.



TXOMIN MUJIKA
Bilbao Musikako zuzendaria

1. “Ilusioz jaso dut. Zerbait esateko zain geunden, eta ilusioa egin dit, bai. Pauso bat da hau, pauso garrantzitsu bat”.

2. “Etorkizunaren gainean zer esango dizut ba! Lehen baino argiagoa ikusten dut etorkizuna, baina garbi izan behar dugu hau ez zela azken helburua. Adierazpen hau pauso bat da konponbiderako bidean, baina ni neure itxaropentsu nago”.



HODEI OTEGI
Arnaldo Otegiaren semea eta Arnaldo Askatu, politika askatu! plataformako kidea

ren aldeko indarrak metatuz, beti ere ezker abertzaleak hartu duen bide demokratikotik”.

1. “Oso ondo, oso pozik. Espero nuen komunikatua”.

2. “Garbiagoa da beste fase berri batean sartzen garela, oso fase interesgarrian. Zaila eta luzea izango da, baina pozgarria, eta gorabeherekin”.



PELLO RUBIO
Txillarre baserrikoa



ALAITZ VIVES
Kazetaria

1. "Aurreko aldietako poz-etzandarik gabe, baina baikor hartu dut agiria, nola ez. Hemendik aurrera lasaiago lo egingo dutenengan pentsatu dut, eta baita horien etxeko eta lagunaren lasaituan ere. "Pentagrama barruan harrapatuta" daudenak aipatzen ditu Karmelo Landak, eta nik uste dut horientzat ere itxaropenerako zirrikitua ireki dela".

2. "Bukaerarako bide luze horretan ezinbesteko lehen urratsa da, nolabait. Hortik aurrera zer datorren erabakitzea, ezer bator, hiritarroi dagokigun zerbait da. Zaindaririk gabe".

1. "Astelehenean justu, 25 urte bete zituen anaiak kartzelan, eta baikor hartu dugu albiste.

2. "Aurrera segi behar da. Erantzukizun handiko momentua dela uste dut, bakoitzak jakingo du zein den bere lana. Ez dago aitzakiarik.



LURDES URAIN
Erizaina, eta Jokin
Urain presoaren arreba



GEMMA
AGIRREGOMEZKORTA
Miski gobernuz kanpo
erakundekoa

1. "Aspalditik geunden zain, eta ilusioz eta itxaropentsu hartu dut. Egia esan, itxaropena ere galtzen dugu sarri halakoetan, baina, bai, badaukat aurrera egingo dugun esperantza".

2. "Ez dakit. Telebista ikusten ari naiz orain, eta entzuten ari naizen ikuspuntuak hain dira desberdinak... Batzuentzat beti da gutxiegi, beti falta da zerbait, eta egia esan etsigarria egiten zait hori. Tristeia iruditzen zait oso bidean aurrera egiteko daukagun aukera hau ez aprobeztatzea. Iruditzen zait denok eman behar ditugula urratsak, eta denok egin behar dugula elkarrekin aurrera".

ETAk Elgoibarren hildakoak

Anjel Berazadi: 1976. urtean Sigma enpresako gerentea zen Anjel Berazadi hil zuen ETAk Elgoibarren. 20 eguneha bahituta egon ondoren, buruan tiro bat zuela agertu zen Berazadiren gorpua Azkarateko errepide zaharrean.

Jose Exposito: 1985eko abuztuaren 4an Jose Exposito Guardia Zibila hil zuen ETAk. Eguerdian aldean pasiaran zebilela tiro bat jaso zuen buruan eta bat-batean hil zen. 62 urte zeuzkan, ezkontuta zegoen eta lau seme-alaben aita zen.

Sebastian Aizpiri: 1988ko maiatzean hil zuen ETAk Sebastian Aizpiri elgoibartarra. ETAko Eibar Komandoak hartu zuen hilketa hau bere gain. Txaltxa taberna inguruan jarritako bomba auto batekin hil zuten.

Patxi Zabaleta: 1988ko ekainean, San Frantzisko kalean tirokatu zuten Patxi Zabaleta elgoibartarra.

OHARRA: Anselmo Duran guardia zibila eta Jaime Arrese Elgoibarko alkate izandakoa ere hil zituzten Elgoibarren, baina Komando Autonomoei egotzi zizkieten bi hilketa horiek.

ETAren biktimen testigantzak

Su-etenari eskainitako orrialde hauetan ETAren biktimen testigantzak jasotzen ere saiatu da BARREN, baina ahalegin antzua izan da. ETAk hildako lagunaren senitartekoekin saiatu gara, baina gai honen gainean ez dutela hitz egin nahi esan digute.

Behin batean... Gabonak

2010 IDAZLEHIAKETA



Behin batean...Gabonak lehiaketa izan dugu aurten ere. Parte-hartzeak handia izaten jarraitzen badu ere, aurreko urtearekin alderatuta beherakada txiki bat izan dela agerian geratu da, baina aurten, lanen maila altua eta landutako irudimena azpimarratu ditu epaimahaiak. Beraz, parte hartu dutenek gogoz egin dutela ondoriozta dezakegu. Zorionak irabazleei, eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei.

ATXUTXIAMAIIKA



PARTE-HARTZE DATUAK

- Olentzero eta Mari Domingiri buruzko marrazkia: 95
- Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza: 108
- Idazlana: "Kantu bat datorkit burura": 84

EPAIMAHAIKIDEAK

- Iñigo Otaño eta Jon Eugi

ANTOLATZAIELA:



BABESLEAK:





MADDI ZABALA 7 URTE, LH2

1. Saria: Maddi Zabala
2. Saria: Elene Zabala

► lazko lehiaketan bigarren saria eskuratu zenuen, eta aurten lehenengoa. Espero zenuen lehiaketa irabaztea? Ez. Oporrak hartu aurretik gure gelara etorri ziren antolatzailleak, baina ez zidaten ezer esan, eta pentsatu nuen ez nuela saririk lortu. Olentzero egunean jakin nuen nik irabazi nuela. Gaixorik nengoen, eta berandu iritsi nintzen sari banaketara. Sorpresa hartu nuen.

► laz akuarelaz eginiko lan batek irabazi zuen. Zuk margoekin egin duzu marrazkia. Zein teknika gustatzen zaizu gehien?

Margoekin hobeto moldatzen naiz. Akuarelarekin margo-tzea zailagoa dela iruditzen zait.

► Nork irakatsi dizu marrazten?

Nire lehengusinak erakutsi zidan marrazten. Bera ni baino nagusiagoa da, eta berarekin ikasi nuen.

► Asko marrazten duzu?

Bai, eta urtebetetzeetan jendeari oparitzeko gordetzen ditut.

► Gustatuko litzaizuke egunen batean Kultur Etxean marrazki erakusketa bat egitea?

Ez, lotsa ematen dit. Nik niretzako egiten ditut marrazkiak, baina ez zait gustatzen erakustea.

► Olentzero eta Mari Domingi ume bati opariak eramaten marraztu dituzu. Zuri zer ekarri dizute?

Bizikleta bat eta txirula. Oporretan bizikletan ibili naiz, baina txirula oraindik ez dut erabili, ez dakidalako jotzen. Ikastolan hasiko gara txirula jotzen ikasten.

► Nola ospatu dituzue Gabonak?

Familian pasatu ditugu, Elgoibarren eta Sorraluzen. Denok elkartu gara, eta oso ondo pasatu dugu.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI MARRAZKIA





NORA ASTIGARRAGA 9 URTE, LH4

► Badirudi lehiaketari neurria hartu diozula, iaz ere zeuk irabazi zenuen-eta gutunen atalean.

Aurten ez nuen espero saria eskuratzea. Sorpresa handia hartu dut.

► Begi bistan da idaztea gustatzen zaizula. Prestaketa berezirik egiten al duzu idazlehiaketarako? Ez dut ezer berezirik egiten.

► Iaz haritz bat izan zen zure gutuneko protagonista, eta aurten jaiotza mekanikoko piezak jarri dituzu opariak eskatzen. Nola bururatzen zaizkizu gaiak?

Idatzi aurretik etxean hitz egiten dugu denon artean, eta horrela ateratzen ditugu gaiak. Gurasoekin erabakitzen dut gaia, eta zerbait desberdina aurkitzen saiatzen gara.

► Zuri gustatzen al zaizu jaiotza mekanikoa? Bai, pila bat.

► Gabonetan eskutitz asko idazten ditu jendeak. Zuk badaukazu Gabonetan postalak edo eskutitzak idazteko ohiturarik?

Bai, kanpoan bizi diren lagunei idazten diet. Iruñean ditut lagun batzuk, eta beste batzuk Madrilan. Haiek ere idazten didate niri, eta pozik hartzen ditut postalak. Aurten e-posta erabili dugu Gabonak zoriontzeko.

► Eta Olentzerori bidali diozu opariak eskatzeko gutuna?

Bai, eta nik eskatu nuena ekarri didate. Olentzerok panpin txiki bat ekarri dit. Botoi bat dauka, eta hori sakatutakoan esaten diozuna errepikatu egiten du. Edozein hizkuntzatan hitz egiten du.

► Hurrengo urtean hirugarrenez irabazten ahaleginduko zara?

Bai, bi urtean irabazteak berriz parte hartzeko ilusioa ematen du.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI GUTUNA

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi:

Aurten Elgoibarko jaiotzako pertsonai batzuek hauxe eskatu nahi dizuegu:

Amona zaharra: Ezin dut xagu mada-rikatua harrapatu! Eraman ahal izango zenuke neska dantzariaren jaimara xagua, ni bakean utzi eta bera beldurtzeko?

Erromatar soldaduak: Kriston kata-rroa harrapatu dugu! Aaaaaaatxissss! Jakingo duzunez, gure uniformea soinetoxoa eta armadura bakarrrik da, eta jaiotza honetan gauero elurra egiten du. Aaaaaatxisss! Gauetan elurrik ez egitea eskatu nahi dizugu.

Txorizoa duen andrea: Urteak daramatzat txorizoa egosten. Bueltak eta bueltak txorizo berberari. Noiz jan ahal izango dut?

Alfonbra astintzen duen andrea: Aspertuta nago alfonbra astintzen. Jadanik bizkarreko mina daukat. Noiz geldituko naiz?

Benoa, ikusi duzue nolako gauzak gertatzen diren gure jaiotzan. Beste batzuk ere badabiltza horrelako gauzak esaten.

Mesedez, egin dezakezue zerbait?

Muxu handi bat, agur.

1. Saria: Nora Astigarraga
2. Saria: Iker Zubiaurre



IRATI INTXAUSTI 11 URTE, LH6

► Bigarren urtez jarraian irabazi duzu idazlanen atalean.

Bai. Egia esan, ez nuen espero eta oso pozik hartu dut

► Istorio tristea idatzi duzu. Nola bururatu zitzaizun istorio hori? Ez dakit! Ingalaterra aukeratu nuen istorioa kokatzeko, eta estatu horrekin gerran egon den herrialde bat sartzea erabaki nuen. Gerrako istorioa idatzi nuen.

► Amaiera, baina, alai eman diozu ipuinari. Amaiera alai duten istorioak gustatzen al zaizkizu?

Bai, nahiago ditut ondo bukatzen diren istorioak.

► Etorbizunean idazle izatea gustatuko litzazuke?

Ez dakit! Uste dut ezingo nintztekeela idazle izatetik bizi. Beste lanbide bat aurkitu beharko dut, eta idaztea zaletasun bezala izan.

► Datorren urtean hirugarren garaipena irabazteko asmorik baduzu?

DBHn egongo naiz, eta ezingo dut parte hartu. Mendaron egiten da ipuin lehiaketa, eta seguruenik hartuko dut parte.

AGATAREN KANTUA

Neguko egun hotz bat zen Londres hirian eta elurra mara-mara ari zen. Ingalaterra gerran zegoen Alemaniarekin, Londresen pobrezia zen nagusi, eta denak beraien etxeetan zeuden beldurturik. Bazen etxe haien artean etxetxo txiki bat; bertan emakume bat bizi zen, alaba bikiekin: Agata eta Elisa. Artean txikiak ziren, eta normala den moduan, hainbeste mugimendu eta gerra zaratarekin ikaratuta egoten ziren. Bikien aita gerran hil zen. Amak egunero kantatu behar izaten zien, haurrak lasaitu egiten ziren-eta. Kanta asko bazekizkien ere, bazuen bat oso kuttuna zuena eta gehienetan hori abesten zien. Kanta horrek bazeukan zerbait beldurra uxatzen zuena.

Behartsuak ziren, ordea, eta ez zuten ia ezer jateko, eta amak zuen guztia alabei ematen zien, baina horrela ere, justu samar ibiltzen ziren. Horrela jarraitu zuten denbora luzez, eta azkenean, ama gosez hil zen. Gosez, eta beharbada, tristu-raz ere bai.

Bi urteko neskatilatxoak bakarrik geratu ziren kale hotz eta ilun hartan. Handik gutxira alemaniar bat pasatu zen etxe aurretik eta ume negarrak entzutean geratu egin zen. Alemaniako erreginarene alaba zen, Isabel. Elisa ikusi zuen lurrean, Agata manta batzuen azpian baitzegoen. Isabelek Elisa Alemaniara eraman zuen, izan ere, alaba bakarra zen eta betidanik nahi izan zuen ahizpa bat. Erreginak bere alabatzat hartu zuen.

Egun batzuk igaro ziren, eta Ingalaterrako erregina Londres nola zegoen ikustera joan zen, eta Agata ikusi zuen lurrean. Erreginak ez zeukan alabarik, baina beti nahi izan zuen bat edukitzea, beraz, Agata berarekin eraman zuen.

Ingalaterraren eta Alemaniaren arteko gerrak bukatutzat eman ziren, baina litekeena zen berriro hastea gerran. Hainbeste zalapartaren artean Agata printzesak hamar urte bete zituen: Neskabila ederra zen, ile horia eta begi urdinak zituen, amarenak bezalakoak. Horrez gain, oso eskuzabala eta atsegina zen, baina ez zeukan lagunik, izan ere, oso gutxitan ateratzen zen gaztelutik, eta ateratzen zenean amarekin joaten zen. Agata ez zen txikitan gertatu zenarekin gogoratzen.

Alemanian ere Elisak hamar urte bete zituen. Agata bezalako zen, baina Elisa bihurria zen eta ez zitzaion gustatzen inori jaramon egitea. Elisa ere ez zen txikitan gertatuaz oroitzen. Erreginak beti esaten zion bakarrik ez joateko inora, arriskutsua izan zitekeela. Baina Elisak, egun batean, lorategian jolasten ari zela, katagorri bat ikusi zuen, eta haren atzetik joan zen lasterka. Basoan galdu egin zen eta ingeles batzuek harrapatu zuten. Ingalaterrara eraman eta ziega batean sartu zuten.

Agatak ez zekien non zegoen ziega, baina gaztelua arakatzea asko gustatzen zitzaion eta beti ibiltzen zen hara eta hona. Horrela zebilela, negar zotinak entzun eta harantz abiatu zen. Elisa zegoen han, eta elkar ikusi zutenean biek kolpera gogoratu zuten ahizpak zirela eta baita hara nola iritsi ziren ere. Agatak erreginari Elisa askatzeko eskatu zion eta gogoratzen zuen dena kontatu. Alemania eta Ingalaterraren arteko gerrak bukatu ziren, eta handik aurrera ahizpa biek egunero abesten zuten amaren kantua, berarekin oroitzeko.

Gaur egun Ingalaterrako eta Alemaniako ume guztiek abesti hori gogoratzen dute beldur direnean.

1. Saria: Irati Intxausti. 2. Saria: Uxue Mancisidor. Sari berezia: Ana Zubiaurre.

16 Idazlanen atalean oso maila altua egon dela-eta, epaimahaiak hiru sari ematea erabaki zuen.

Su-eten “iraunkorra, egiaztagarria eta orokorra” iragarri du ETAK Zelan hartu duzu ETaren azken adierazpena?



German Pedrosa
49 urte, autonomoa

Ilusioz hartu dut. Gainera, nik uste dut hori dela jarraitu behar dugun bidea. Orain sartu daitezela politikariak jokoan eta hasi daitezela lanean, beldurrik ez badute behintzat. Aprobetxa dezatela daukagun aukera hau.



Jose Luis Urbiola
77 urte, jubilatua

Ilusioa egin dit. Poztu nau su-etenak, eta bakerako bidea hasteak. Gerora telebistan entzun ditudan ez zaizkit gustatu, hala ere, dena Euskal Herriaren kontra egitea delako. Iruditzen zait ETA aitzakiaztat erabiltzen dela hemen sarri.



Benito Daquinta
77 urte, jubilatua

ETAK su-etena iragarri izana beti da pozgarria. ETaren biktimek beti izango dute mina, baina zer egingo diogu ba!. Nik uste dut amaituko dela kontu guzti hau. Ez naiz politikaria, eta ez dakit, baina nik uste dut amaituko dela noizbait.



Amaia Rodriguez
19 urte, ikaslea

Lagun batek jakinarazi zidan, eta egia esan lehenengo inpresioa positiboa izan zen. Gero, telebista jarri eta gainerako alderdien eta Jaurlaritzaren erreakzioak entzun nituenean itxaropen apur bat galdu nuen. Galduta moduan nago.

■ SEMAFOROA



Kabalgatan Errege magoek denbora luzea egiten dute San Lazaro egoitzan eta jendeari luze egiten zaio itxarotea: “Katekistek lan

bikaina egiten dute urtero Erregeen kabalgata antolatzen, baina San Lazaro egoitzara egiten duten bisita luzeegia izaten dela iruditzen zait. Bisita hori egin beharrekoa da, dudarik gabe, baina ezin al litzateke beste momenturen batean egin? Madalako itxaronaldia luze joaten da, bai umeentzat, bai gurasoentzat eta baita kabalgatan parte hartzen duten guztientzat. Aurten, esate baterako, haizea zegoen eta antortxeekin zain egoten min hartzeko arriskua ere izan zitekeen. Nire ustez, Kabalgata Madalan hastea da aukera bat. Ordu ofiziala baino ordu erditxo bat lehenago joan daitezke erregeak San Lazaro egoitzara, eta ondoren, Kabalgata guztia etenik gabe egin. Dena dela, zorionak eman behar zaizkie antolatzaileei, lan handia egiten dutelako hori guztia koordinatzen”.



Kontsumoa gubitzeko kanpaina egin eta Madalan barrakak jartzeak ez dauka zentzurik: “Gabonetan neurrian kontsumitzeko esku-orriak banatu ditu Udalak, eta, aldi berean Madalako parkean barrakak jarri dituzte. Kontraesan handia dagoela iruditzen zait, eta horrelako gauzak gehiago zaindu behar direla uste dut”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrere@goibarKoizara.com 943 744 112

JAIRO BERBEL

“Zoriontsua izatea erraza dela erakutsi nahi dut dokumentalean”

KAZETARITZA IKASLEA



Jairo Berbel elgoibartar gazteak *Irribarreen paradisua* izeneko dokumentala egin du, Kongon (Afrika) jasotako irudiekin. Bi urtez segidan joan da Berbel Kongora, Kanseniako zonaldera, Tomas Madinabeitia misiolariarekin, eta hango bizimodua jaso du bere kamerarekin. Hango bizipenaren ondoren mundua beste era batean ikusten du Jairok: bere iritzi, pozik bizitzeko ez da gauza asko behar, eta sentipen hori elgoibartarrei transmititzea nahi du. Dokumentala astelehenean estreinatuko du Herriko Antzokian, 19:00etan, eta hilaren 21ean ere egongo da ikusteko aukera, 22:15ean. Bi emanaldiak doan izango dira.

Irribarren paradisua' izeneko dokumentala estreinatuko duzu astelehenean. Zer jaso duzu dokumentalean?

Kongo Errepublikako Demokratikoko jendearen bizimodua jaso dut, eta haien eguneroko bizitza erakusten du dokumentalak. Hemengo enpresa eta erakundeek nola laguntzen dieten ere ikusten da, Kondiak edo Debegegak, esate baterako. Bideo irudiz eta argazkiz osatu dut lana, eta bertakoen esanak ere jaso ditut.

Zein izan da dokumental hori prestatzeko helburua?

Zoriontsua izatea eta pozik bizitzea erraza dela erakutsi nahi diot jendeari. Hemen denetik daukagu, eta hala ere beti kezuka gabilta. Jendeak pobreziarekin eta tristurarekin lotuko du Afrika seguruenik, baina nik sorpresa handia hartu nuen. Kongoko bizimodua guretzat ez da erraza, baina haiek pozik bizi dira, eta beti daukate irribarra ahoan, eta itxaropentsu ikusten zaie. Ez da dokumental tristea, baina ikusleek apur bat pentsa dezaten nahi dut; hau da, Herriko Antzokira joaten direnek apur bat erreflexionatzea nahi dut.

“Kongoko bizimodua ezagutu ondoren, mundua beste era batean ikusten dut”

Nolakoa da, bada, Kongoko bizimodua?

Desberdina da, erabat. Ni Kanseniako zonaldean egon naiz, eta han ondo bizi direla esan dezaket. Jana eta edana badaukate, eta bizitzeko txabolak ere bai. Ez dakite beste guztiok zer daukagun, eta horregatik, daukarekin nahikoa daukate. Ez daukate komunikabiderik eta ez dituzte Bin Laden edo Bush ezagutzen, baina ez daukate horren beharrik ere. Apaltasunean pozik bizi dira. Hiriburuan gauzak desberdinak dira. Dirudunek diru asko daukate, eta txiroak oso txiroak dira. Haien egoera gogorra da.

Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai. Lan handia hartu dut, eta denbora asko eskaini diot dokumentalari, baina pozik gera-

tu naiz lortutako emaitzarekin. Ez naiz profesionala, eta unibertsitatean ikasi dudanarekin egin dut muntaia guztia. Irudiak, ahotsa eta musika ondo uztartzea ez da lan erraza. Nire ingurukoek ikusi dute dagoeneko, eta asko gustatu zaie. Ama negar zotinka geratu zen dokumentala ikustean. Orain herritarren kritikak entzun nahi ditut. Nire ustez, polita geratu da, eta orain espero dut jendeari ere gustatzea.

Iaz argazki erakusketa jarri zenuen, eta orain dokumentala egin duzu. Kongora joan zinean ideia horrekin abiatu zinen ala gerora sortu zaizu lan horiek egiteko aukera?

Hasieratik joan nintzen asmo horrekin. Bideo eta argazki kamera eraman nituen neurekin, eta ahal nuen guztia jasotzen nuen. Nire ekipajearen parte dira bideo eta argazki kamera. Jendeak gauza oso politak esan zizkidan erakusketaren ondoren, eta oso pozik geratu nintzen.

Kongora egindako bidaiaren ondoren beste modu batean ikusten duzu bizimodua?

Bai, dudarik gabe. Kongoko bizimodua ezagutu ondoren, mundua beste era batean ikusten dut. Une askotan gogoratzen naiz hango umeek, eta Gabonetan, zer esanik ez. Hemengo jostailuak hango umeek ikusiko balituzte... Haiek ez daukate Olentzerorik edo Errege Magorik! Baloi batzuk bidaliko nizkiela esan nien, eta sekulako poza hartu zuten.

Zein estilotako erretratuak egitea gustatzen zaizu gehien?

Umeak eta pertsona nagusiak erretratatzea gustatzen zait, bereziki, espresio handikoak direlako. Jendearen espresioak izugarri gustatzen zaizkit.

Orain dela hilabete batzuk “Todos somos diferentes” argazki lehiaketa irabazi duzu, aitzurrarekin lanera doan neskatxa baten argazkiarekin.

Bai, sekulako sorpresa hartu nuen, ez nuen espero. Iazko ekainean bidali nuen erretratua Madrilera, eta irailan deitu zidaten, lehiaketa irabazi nuela esateko. Izugarri poztu nintzen. Kongoko umeek lan asko egiten dute, eta eskolara joateko zailtasun handiak dituzte, baina beti pozik daude. Dokumentalean ikusiko da nolakoa den ume horien bizimodua. **Kazetaritza ikasten diharduzu. Zure zaletasunarekin uztartzeko aukera ematen dizu?**

Bai, oso ondo datorrit. Argazkiak ateratzeaz gain, idaztea ere gustatzen zait eta kazetari-

tzak hori guztia biltzen du. Gainera, leku berriak ezagutzeko ere balio du.

“Denbora asko eskaini diot dokumentalari, baina pozik geratu naiz emaitzarekin”

Aurrera begira, zein proiektu dituzu eskuarte-an?

Ikasturtea amaitu ondoren Brasilera joango naiz, bi hilabeterako. Beka bat lortu dut hango umeekin erredakzio moduko bat sortzeko, eta kazetaritza lanbidea nolakoa den erakutsiko diegu. Horrez gain, ikas-bidaian Kubara joango naiz, eta hango irudiak ere jasoko ditut. Bestalde, aitarekin Mendebaldeko Saharara egingo dut bidaia, argazki rally bat egitera. Argazki eta bideo kamera eramango ditut bidaia horietara, eta agian bildutako materialarekin zerbait egiteko aukera izango dut ondoren.

Ainhoa Andonegi



Jairo Berbel Kongoko umeekin.

Sortaldetik, opariz beteta

Zaldiz iritsi dira aurten ere Errege Magoak Elgoibarrera eta Mendarora, otzarak bete oparirekin. Iritsi zirenerako, ehunka ume zituzten zain, gutuna eskuan zutela haietako asko eta asko. Egun magikoa izan ohi da errege bezpera, ume zein nagusientzat, eta ilusioa nabari zitzaien aurpegietan. Elgoibarren, jaiotza biziduna ere bisitatu zuten hiru erregeek, eta urtero legez, opariak eraman zitzioten Jesus haurtxoari. Hona hemen Elgoibarko eta Mendaroko argazki batzuk. Argazki gehiago: www.ElgoiBAREN.net helbidean.



Elgoibarko Udal Musika banda zuzentzeari lagako dio Jose Antonio Osorok domekan, 27 urteren ostean

Bing Band taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 17an, Herriko Antzokian

Jose Antonio Osoro *Katxoren* agurreko kontzertua izango da domekan Elgoibarko Udal Musika Bandak Herriko Antzokian eskainiko duena. Osorok 1984. urteko Errege Egunean hartu zuen zuzendari kargua. Orduko hartan, Ricardo Doradoren *Simba* izeneko piezarekin hasi zuten kontzertua, eta hain justu ere, pieza horrekin esango du agur domekan. Astelehenetik aurrera, Txomin Mujikak hartuko du Osorok 27 urtean bete duen kargua, eta zuzendari ordea izendatzea izango da Elgoibarko Udal Musika Bandaren hurrengo egitekoa.

Martitzenean Jose Antonio Osororekin bildu zen BARREN, 27 urteotako ibilbideari buruz eta etorkizunari buruz jarduteko, eta www.elgoiBARREN.net atarian daukazue bideoa ikusgai. Elkarrizketa horretan udal musika banda zuzentzea "ohore handia" izan dela dio Katxok, eta "zortekoa" izan dela nabarmentzen du, Elgoibarko herriak bandari eman dion erantzunagatik eta musikariek eurek eskainitako laguntasunagatik. "Satisfazio handia izan da", aitortu du behin eta berriz. Horren harira nabarmendu du Elgoibarko Udal Musika Bandak emandako gauza onak gauza txarrak baino askoz gehiago izan direla.

Big-Band, astelehenean

Bing Band taldeak, bestalde, kontzertua eskainiko du hilaren 17an, Herriko Antzokian, 12:30ean. Hamar bat pieza joko dituzte, denak ere *jazz* ikutukoak. Hala ere, *bossa nova*, *funk-a*, *latin jazz-a* eta beste estilo batzuk entzuteko aukera ere izango da. Kontzertua doan izango da.



Agortu dira Glu-glu produkzioak taldearen 'Vaya Semanita' antzezlanaren ikusteko sarrerak



Agortu dira *Vaya Semanita* ikusteko sarrerak. Bi saio eskainiko dituzte Glu-glu produkzioko antzezleek gaur: 20:00etan eta 22:15ean. Euskal Telebistako *Vaya Semanita* saioko atalik onenak antzeztuko dituzte Elgoibarko Herriko Antzokian, zuzenean. Antzezlan honekin herririk herri dabilta Glu-glu produkzioak taldekoak, eta "pozik" daude lortutako arrakastarekin. Umorea da antzezlanaren osagai nagusia, eta aktoreek iragarri dute barrez lehertuko direla gaur Herriko Antzokira gerturatzen diren guztiak.

Fernando Ansola eta Juan Mari Andonegi omenduko ditu filatelia elkarteak

Fernando Ansola futbolari ohia eta Juan Mari Andonegi Altzolatarren Dorretxea elkarteari estuki lotutako gizona omenduko ditu aurreko Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak. Fernando Ansola (1940-1986) gazte hil zen, 46 urterekin, baina kirol ibilbide luzea izan zuen. 1960ko martxoaren 27an debutatu zuen Lehenengo Mailan, Oviedo taldearekin. Gero, Betis, Valentzia eta Realean ere jokatu zuen eta Espainiako selekzioaren elastikoa ere jantzi zuen, harik eta 35 urterekin futbola laga zuen arte. Juan Mari Andonegik, berriz, pasioa zuen Elgoibarrerikiko, eta filatelia elkarteak editatutako hainbat liburu idatzi zituen.

Filatelia erakusketa bihar zabalduko dute, eta hilaren 23ra arte egongo da Kultur Etxean. Orutegia: aste barruan: 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Leonard Komon, Mugertza Kroseko iazko irabazlea, Mintxetan izango da aurten ere

Datorren martitzenean aurkeztuko dute krosa udaletxean

Mintxeta taldeko kideek aurreratutakoaren arabera, Leonard Komon korrikalari kenyarrak aurten ere hartuko du parte Mugertza krosean. Birritan irabazi du Komonek Mugertza krosa (2008an eta 2010ean), eta aurten ere sasoiko ailegatuko da Elgoibarrera. Urtarrilaren 23an izango da lasterketa Mintxetan, eta kenyarra bera da aurtengo edizioa irabazteko faborito nagusia.

Iazko Mugertza krosean lortu zuen garaipenaren ondoren, laugarren postua eskuratu zuen Leonard Komon kenyarrak Polonian jokatu zen munduko kros txapelketan. Horrez gain, joan den udazkenean munduko bi errekor ezarri ditu: Utrechen (Herbeherak) hamar kilometrotako errekorra hautsi zuen, 26 minutu eta 44 segundoko denborarekin. Hamar kilometroko proba 27 minutuz azpitik egitea lortu duen lehen gizona da kenyar gaztea. Hamabost kilometroko marka ere



hobetu du (41:13) Komonek, hori ere Herbereetan, Nijmegen hirian, hain zuzen ere.

Aurkezpena urtarrilaren 18an

Urtarrilaren 18an, martitzenean, aurkeztuko dute Juan Mugerza Nazioarteko krosa udaletxeko pleno aretoan. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak,

Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendariak, Kutxako ordezkariak eta beste laguntzaile batzuek parte hartuko dute aurkezpenean. Han argituko dituzte aurten etorriko diren atleta garrantzitsuenen izenak eta krosaren inguruko xehetasun guztiak. Korrikalari harrera, bestalde, urtarrilaren 22an egingo diete, 19:00etan pleno aretoan.

Ikastaro berriak jarri ditu martxan Kirol Patronatuak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskaintza berria prestatu du 2011rako. Kirol jarduerari gehiago eskainiko ditu, eta ordutegi eta talde berriak egongo dira aukeran. Besteak beste, GAP, Step, Pilates eta jaiaberrientzako ikastaroak jarri dituzte martxan. Informazio gehiago eskuratzeko Olaizaga kirolderia jo daiteke.

Gaur jokatuko dituzte San Anton pilota txapelketako bigarren finalerdiak



San Anton Pilota txapelketako bigarren finalerdiak gaur gauean jokatuko dituzte Ikastolako frontoian. Promesetan Arrieta eta Aizpuru bikoteak Arribillaga eta Murgiondo izango ditu aurrez aurre. Nagusietan, bestalde, Andreu eta Aldape, Uriarte eta Loiolaren kontra arituko dira. 22:00etan hasiko da norgehiagoka.

Joan zen astean jokatu ziren lehenengo finalerdiak, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, "partida oso politak" izan ziren. Promesetan, Muguruza eta Rezustak 22-10 irabazi zieten Lizarralde eta Ugalderi. Nagusietan berriz, Atxotegi eta Jauregi gailendu ziren Belloso eta Bolinagaren kontra (22-11). Finalak datorren astean jokatuko dituzte.

Aitor Romerak eta Aitzol Garmendiak irabazi dute Morkaikoren lehiaketa

86 argazki eta bost bideo aurkeztu dituzte guztira



Aitor Romerak Nepalen Fishtail mendiari ateratako argazkiak irabazi du Morkaikoren lehiaketa argazkien atalean, eta, Aitzol Garmendiaren Silvretta Rock bideoak jaso du lehen saria bideoen atalean. Aurten 86 argazki eta bost bideo aurkeztu dituzte guztira, eta lan guztiak Kultur Etxeko sotoan jarri zituen ikusgai Morkaikok, abenduaren 20tik 27ra bitartean. Tarte horretan, ikusleek euren gustuko argazki eta bideoa aukeratzeko aukera izan zuten. Boto horiei esker, Miriam Lizarraldek Azaola baserrian ateratako argazkiak jaso du ikusleen saria erretratuen atalean, eta bideoen alorrean, Arkaitz Iruretaren bideoa izan da ikusleen gustukoena. Lehiaketako argazki eta bideoak ikusteko: www.elgoiBARREN.net

Egoitz Morak Euskadiko Judo Txapelketa irabazi du



Egoitz Morak Euskadiko Judo Txapelketa irabazi du, ehun kilo azpikoetan. Orain arte 90 kilo azpikoetan lehiatu izan da elgoibartarra, baina, ehun kilokoetan ere oso ondo aritu zen, eta txapelketako hiru borrokak irabazi zituen. Orain Espainiako txapelketa jokatuko du Egoitz Morak.

EMAITZAK

FUTBOLA

Beasain 1 – Haundi 0 (Pref.)

Elgoibar 3 – Lagun Onak 1 (Erreg.)

Santo Tomas Lizeoa 2 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)

Elgoibar 1 – Aloña Mendi 2 (Kad. A)

Elgoibar 4 – Ondarroa 1 (Kad. B)

Anaitasuna 0 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)

Touring 2 – Elgoibar 6 (Inf. txiki)

ESKU PILOTA

San Anton txapelketa

Muguruza-Rezusta 22 – Lizarralde-Ugalde 10 (Pro.)

Atxotegi-Jauregi 22 / Beloso-Bolinaga 11 (Nag.)

ARETO FUTBOLA

Jarrilleros 1 – Concepto Createch 4 (1. maila)

ESKUBALOIA

Aloña Mendi 17 – IMH 15 (Kad. neska)

Txarriduna Elg. 28 – Karibe Zaharra 28 (Kad. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

16:00 Concepto Createch – Egintza (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15

10:00 Elgoibar – Arrasate (Inf. Txiki)

12:00 Elgoibar – Burumendi (Ohorezko Jub.)

16:30 Haundi – Zamudio (Pref.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

10:00 Aterpe Elg. – Zarautz (Inf. mut.)

11:15 Bankoa Elg. – Bergara (Inf. mut.)

18:00 IMH Elg. – Urnieta (Kad. neska)

ESKU PILOTA

Barbakua, 14

San Anton txapelketa

22:00 Arieta-Aizpuru / Arribillaga-Murgiondo (Prom.)

22:45 Andreu-Aldape / Uriarte-Loiola (Nag.)

Estiloarekiko fidelotasuna eta jarrera saritu dituzte finalera iristeko

Shot estudioan diskoa grabatzeko aukera izango du irabazleak

Gaur gauean izango da Danbaka musika lehiaketako finala. Lord Witch, Xarma eta Desprezio taldeak iritsi dira laugarren edizio honetako finalera. Beti bezala, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango da finala 22:30ean hasita. Hiru taldeek euren emanaldia eskaini ondoren Atom Rhumbak kontzertua eskainiko du. Sarrerak 5 euro balio ditu, TopaKide txartelarekin, berriz, 3 euro da. Sarreran aurkeztu beharko da txartela deskontua lortzeko.

Finaleko taldeak

Estiloarekiko fidelotasunak eta jarrerak eraman ditu hiru taldeak finalera. Lord Witch talde bergararraren gainean epaimahaiak ondo-koa dio: "Taularatze oso zaindua dute, detaileak asko zaintzen dituzte. Zuzenean asko irabazten dute, eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira". Xarma ondarrutarraren gainean "mezua" daukatela dio epaimahaiak: "Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek", gaineratu dute. Bada ordua XXI. mendean Do It Yourself edo egizu zuk zeuk errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute eta koherenteak dira", dio epaimahaiak Soraluze eta Bergarako Desprezio taldeaz.

Sariak

Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Kutxak babestutako saria izango da. Debagoieneko talde onenak, berriz, MUK babestuta, bideoklipa grabatuko du. Gainera, ikusleen artean

Laino Skate parkeak emandako skate materiala eta urtebeterako sarrera zozketatuko dituzte. Sarrerak salgai daude 5 eurotan (Gazteku-txarekin, 3 euro).

Taldeen iritziak

DESPREZIO: "Harrituta, baina era berean pozik gaude. Guk ondo pasatzeko helburuaz eman genuen kontzertua eta finalerako txartela eskuratzea pozgarria izan da. Entsetzen ari gara, baina inprobisazioa ere izango da zuzenekoan. Jende asko egongo da eta urduritasuna gaindituta dena emango dugu".

XARMA: "Gustura eta pozik jaso dugu epaimahaiaren erabakia. Kontzertu aldrebesa eman genuen, eta ez geneukan esperantza handiegirik finalerako txartela eskuratzeko. Finalerako sorpresatxo-
ren bat gordeko dugu, eta kanta berriren bat eskainiko dugu. Edozer gertatu daiteke".



Atom Rhumba



Desprezio



Xarma



Lord Witch

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDARIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA




www.danbaka.com



• Zorionak, **Iban**, 2 urte egin dituzulako. Jonen eta gurasoen partez.



• Zorionak, **Jon**, urtarilaren 7xan bost urte bete zenduazelako. Muxu asko familiakuen partez.



• Zorionak, **Telmo**, urtarilaren 11n urtebete egin zenuelako. Familiakoen, eta bereziki, Klararen partez.



• Zorionak, **Aiiala**, gaur 6 urte egin dituzulako. Anerren eta familiako guztien partez.



• Zorionak gure etxeko sorgintxoari, asteazkenean 3 urte egin zituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Monica**, hilaren 4an 9 urte egin zenituelako. Patxoak, familiakoen partez.



• Zorionak etxeko sorgintxoari, 2 urte egin dituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Asier**, atzo 4 urte egin zenituelako. Etxekoen, eta bereziki Julen eta Ikerren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, zure 5. urtebetetzean. Etxekoen eta lagunren partez.



• Zorionak, **Uxue**, etxeko dan-danon partez eta, batez ere, Saioa, Jon eta Nahia-ren partez.




• Zorionak, **Oihane**, San Anton egunean 4 urte egingo dituzulako. Familiakoen, lagunren eta, bereziki, neba Asierren partez.



• Zorionak, **Iboni**! Dagoeneko 2 urte potolo beteko dituzu! Muxu handi bat Olatzen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Paulo eta Iker**, bihar eta 17an zuen eguna delako. Etxekoen partez, muxu handi bana.



• Zorionak, **Aitor eta Nahia**, zuen 2. urtebetetzean. Muxu handi bana familiakoen eta bereziki, Goraneren partez.



• Zorionak, **June**, 6 urte egin dituzulako. Etxekoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.
Nor bait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

■ MERKATU TXIKIA

LANA

ESKAERA

- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gaeuz. Esperientzia handia. ☎ **943 744 433**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Edozein ordu edo egunetan. ☎ **606 226 827**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **646 464 300**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **637 966 749**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **609 484 891**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo externa. ☎ **608 820 954**
- Mendaroko ospitalean gaeuz gaixoak zaintzeko prest. Merke. ☎ **696 051 058**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **626 490 986**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Arratsalde, edo asteburuetan ere bai. ☎ **646 821 678**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxe apaina alokagai Elgoibaren, erdigunean. Logela bakarra, egongela, terraza txikia.. ☎ **660 042 159**
- Logela bat hartuko nuke alokairuan. Arduratsua naiz, eta lanean dihardut. ☎ **636 036 656**
- Mutila alokairuzko etxe baten bila dabil. ☎ **943 031 317**
- Etxea salgai. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua eta egoera oso onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Bi logela alokatzen dira, multientzat. Arropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**
- Etxebizitza alokatzen da Mendaron, Azpilgoeta auzoan. ☎ **685 772 494**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- 20 tonako Escania kamioia salgai. Lana dauka. Gaitasun profesionala behar da. ☎ **685 724 273**

- Garaje itxia alokatzen dut Madalan. ☎ **695 784 765**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokatzen dut Santa Ana 49an. ☎ **660 841 767**

LOKALAK

- Kafetegia alokatzen da erdigunean. ☎ **943 740 037**

BESTELAKOAK

- Belarritakoa galdu dut. Perla zuri bat dauka. Balio handia dauka niretzat. ☎ **943 743 140**
- Vogue markako eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Maltzagara bidean. ☎ **636 845 336**
- Tekel arrazako txakur emea salgai. 18 hilabetekoa, esanekoa eta maitakorra da. ☎ **677 097 015 (Karmen)**
- NANA eta Osasun Txartela galdu nituen orain dela hiru bat aste. ☎ **943 740 365 (Begoña)**

14 barixakua

Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Vaya
Semanita'

Herriko Antzokian.

Kirola

22:00 San Anton pilota
txapelketa

Ikastolako frontoian.

15 zapatua

Kirola

11:00 Motoziklismo

federakuntzako sari banaketa

Herriko Antzokian. Segidan, trial
erakustaldia, Madalan.

Erakusketa

12:00 Zigilu erakusketaren
inaugurazioa.

Kultur Etxean.

16 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren
kontzertua

Herriko Antzokian.

Aisialdia

18:00 Erraldoi eta buruhandiak
Kalejira.

17 astelehena

Meza

11:00 Meza nagusia

Parrokiako abesbatzarekin.

Aisialdia

11:30-14:00 eta 16:30-19:30

Umeentzako parkea.

Plaza Handian (Euria bada,
ikastolan)

Musika

12:30 Big Band Experience

taldearen kontzertua

Herriko Antzokian.

18 martitzena

Kirola

12:30 Mugertza krosaren

aurkezpena

Udaletxean.

Gabonak

17:30 Jaiotza mekanikoa

ikusteko azken eguna

San Bartolome parrokian.

ESKERTZA

JOSEFA CASTAÑARES IRIONDO



2011ko urtarrilaren 4an hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



OKINDEGIA

16 domeka **FOTERO**
17 astelehena **IBARRENEA**

FARMAZIAK (24 orduz)

14 Garitaonandia-Bidasolo
15 Etxeberria (Santa Ana)
16 Fernandez
17 Etxeberria (Santa Ana)
18 Zabaleta
Goizez, Yudego.
19 Zabaleta
20 Etxeberria (Errosario)
21 Ibañez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Harry Potter y las
reliquias de la muerte»

15, zapatua: 19:00/22:15

16, domeka: 19:00

17, astelehena: 21:30

«Iratxo erregea»

16, domeka: 16:30

«Irribarreen paradisua»
(dokumentala)

17, astelehena: 19:00

21, barixakua: 22:15

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1

Tel: 943 741 189

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3.sotua 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CURSO 2010-2011 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK
MATRICULA ABERTA

www.udal.euskaltegia.net

Euskara ikasteko bide zuzena
Tu vía al euskera



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA Matrikula zabalik!

Nafarroa Esperantzeta 2
20870 **ELGOIBAR** • Tel./Faxa: 943 74 27 31
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

IKASTAROAK

- Aurrez aurrekoak
- Autoikaskuntza.
- AISA ikastaroa, etorkinentzat

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Perfilak (IVAP, Osakidetza)
- HABEren 1., 2. eta 3. mailak.
- EGA

MATRIKULA OTSAILAREN 4ra ARTE

Diru-laguntzak eta bekak.
Informa zaitetz euskaltegian!

Ordutegia: 09:30 – 13:00
15:30 – 19:30



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA



IMH



Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza



Ate irekiak urtarrilaren **22an**
(11:00etan. Euskoskills fabrikazio probak ere ikusi ahal izango dira)

Etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaitetz www.imh.es orrian.
2011ko ate irekien egutegi osoa webean



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioa - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioa - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorzaintza

Pagoa loradenda
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.
Olaso 27, 47. pabillioa
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak
Arragueta, 3 (Elbar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

